

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

503/2014 Foru Agindua, azaroaren 18koa, onartzen duena Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren urriaren 10eko 440/2014 Foru Aginduan ezarritako baldintzak bete direla. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Añanako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedientea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Urriaren 10eko 440/2014 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen Añanako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedientea.

Bigarrena. 440/2014 Foru Aginduak berak ezarri zuen, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirenez gero, haiek konpondu ostean espedientea zuzenean igorriko zela foru aldundira, berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, bete beharrekoa zela adierazteko eta hura izapidetu eta argitaratzeko.

Hirugarrena. 2014ko urriaren 6an, espediente horren testu bateratua Aldundiaren Erregistroan sartu zen.

II. OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa azterturik, egiaztatu da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren urriaren 10eko 440/2014 Foru Aginduak, Añanako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedientea behin betiko onartu zuenak, ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO

HIRIGINTZA FITXA SGE-CU/ELJ/ "Done Kristobal"

SGE-CU/ELJ "DONE KRISTOBAL" HIRIGINTZA ERAMUAREN ARAU PARTIKULARRAK

1. DESKRIBAPENA

Eremua:

Hirigune historikoaren ipar-ekialdeko alderik garaienean dagoen area da, eta hiri bilbeari amaiera emateaz gain, inguratzen duen harresiz kanpoko gunetik bereizten du.

Mugaketa 07 planoan Hiru lurzorua kalifikazio xehatua islatzen du zehaztuta dago. Horren arabera, 1.954 m² ditu, dagoen kartografiaren gainean neurtuta.

Eremuaren hirigintza kalifikazioa Espazio Libreen Sistema Orokorra da, eta Sistema Orokorren hornidura sarearen barruan dago.

Antolamendua:

Zona horren antolamendu xehatua plan berezian ezarriko da.

Ondoren, zona horretarako urbanizazio proiektua egingo da.

Antolamenduko jarraibideak:

Pilotalekuaren inguruak, hau da, hirigune historikoaren ipar-ekialdeko harresiz barruko guneak, paisaia eta ondare balio izugarria du, eta bide emango du han dagoen Done Kristobal eliza zaharrean aurkitutako hondakin garrantzitsuak eta ager daitezkeen harresi hondakinak ikusteko eta azalpen testuinguru orokor horretara integrazeko.

Gune horretara helduko da iparraldetik hiri parkea igarotzen duen harresiz kanpoko ingurabidearen pasealekua, hots, "Erronda pasealekua" SGEL

Eraikin txiki bat egin ahal izango da parkearen edo haraneko turismo ibilbidearen ustiake-tarekin loturiko bideari hasiera emateko. Kultura Ekipamenduko Sistema Orokorra SGE-CU.

Alde horretan altzariak jarriko dira, inguruarekin bat datozen materialekoak.

Onik zaintzeko ahalik eta lan gutxien egiteko helburuarekin antolatuko da berdegunea.

Uneoro beteko da gune natural honen babesaren araudia. Babes hori hiri lurzorua sailkapena eman (Arau subsidiarioen 5. aldaketa) aurreko ingurumen azterketan oinarritzen da. Era berean, kontuan hartuta zona honen ezaugarriak, edozein indusketa egin baino lehen egiten diren arkeologia azterlanak beteko dira.

Epeak

Urtebete plan berezia garatzeko, arau subsidiarioen aldaketa hau onartzen denetik aurrera.

Urtebete urbanizazio proiektua garatzeko, plan berezia behin betiko onartzen denetik aurrera.